

Hondakin elektronikoen hazkundeaz ohartarazi du NBEk

Hondakin elektronikoen sorkuntza bost aldiz azkarragoa da birziklapena baino. Horren ondorioz, dirutza galtzen da (berreskuratu gabe geratzen diren materialek 57 mila milioi euro balio dutela kalkulatu dute), eta ingurumenari kalte nabarmena egiten zaio. Hala adierazi du Nazio Batuen Erakundeak, [auzi horretaz arduratzen diren taldeen azken txostenean](#). Aurrera begira, aurreikuspenak ez dira baikorrak: 2030erako, 2022an baino % 33 hondakin elektronikoko gehiago sortuko direla kalkulatu dute; guztira, 82 milioi tona. Aldi berean, birziklapena % 22,3tik % 20ra jaitsiko da.



ARG.: Max Pixel.

Joerari aurre egiteko, erronka hauei erantzun beharko zaiela adierazi du NBEk: garapen teknologikoa, kontsumoaren igoera, konpontzeko aukera gutxi izatea, produktuen bizi-ziklo laburra, gizar-tearen elektronifikazioa, diseinu-akatsak eta birziklapenaren kudeaketa eskasa. Mineralen krisia ere aipatu du.

Balantzaren beste aldean, datu hau jarri du: 2023rako zabor elektronikoa % 60 jasotzea eta birziklatzea lortuko balitz, irabaziak 35 milioi eurokoak izango lirarteke, giza osasunari kalte egiteko arriskua gutxitzea barne. ●

Klima-aldaketak urtean 3,2 puntu handitu dezake elikagaien inflazioa

Berotze globalaren ondorioz, urteko 3,2 punturaino igo liteke elikagaien inflazioa, eta 1,2 punturaino inflazio globala. Ondorio horretara iritsi dira [Communications Earth & Environment aldizkarian argitaratu duten lan batean](#). Gainera, ondorioztatu dute klimak eragindako inflazioa mundu osoan izango den arren, gehiago eragingo diela hegoalde globaleko herrialdeei, batez ere Afrikakoei eta Hego Amerikakoei.



ARG.: ElasticComputeFarm/Pixabay.

Ikertzaileek 1991tik 2020ra bitarteko 121 herrialdetako prezioen hileko indizeak eta datu meteorologikoak aztertu dituzte, eta, klima-eredu fisiko bat erabiliz, 2030 eta 2060 bitartean berotzeak inflazioan izango duen eragina kalkulatu dute. Hala, ikusi dute 2035erako aurreikusten den tenperatura-igoerarekin elikagaien inflazioa 0,9-3,2 igo daitekeela urtean, eta inflazio orokorra 0,3-1,2. Proiekzioen arabera, latitude txikiko eskualdeetan tenperatura igotzeak inflazioa handituko du urte osoan zehar, eta, aldi, latitude handiagoetan udan soilik gertatuko da efektu hori.

Bestalde, 2022ko udako muturreko tenperaturek zer eragin izan zuten ere kalkulatu dute: Europako elikagaien inflazioa 0,67 puntu igo zen. ●



Albiste gehiago,
webgunean